



**EUSKARA IRAKASLEEN LAN-POLTSA
(2016/2017, 2017/2018, 2018/2019 IKASTURTEAK)
LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK, HORIEN HELBURUA, UDAL
EUSKALTEGIAN JARDUNGO DUTEN EUSKARA IRAKASLEEN LAN-POLTSA
SORTZEA DA.**

Lehenengoa.- Deialdiaren xedea:

Deialdi honen helburua, Basauriko Udal Euskaltegiko Euskara Irakasleen Lan-poltsa sortzea da, eta bestalde, horren asmoa da, euskarazko ikastaroak emango dituzten irakasleak kontratatzeko balio izan dezala, horrela, ikasleen eskariari erantzuteko aukera egon dadin, eta baita, gaur eguneko irakasle titularren ordezkotza gisa jardun dezaten, lanerako aldibaterako ezgaituak egotearen bajaran egoten direnean, edo beste inguruabar batengatik lanera etortzen ez direnean.

Hautaketa-prozesua Lehiaketa bidezkoa izango da.

Hautaketa-prozesua gainditzen duten izangaien zerrenda, hiru ikasturteko epealdian, erabili ahal izango da.

Bigarrena.- Izangaiek bete behar dituzten baldintzak:

Onartuak izateko, eta bere kasuan, lehiaketan parte hartu ahal izateko, hurrengo baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Europako Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, Europako Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen aplikazioari jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen den estaturen bateko herritartasuna izatea.
- b) Hamazortzi urte beteak izatea.
- c) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragotziko lukeen nahiz gaixotasun nahiz akats fisiko edo psikikorik ez izatea.
- d) Ez du diziplina espediente bidez, Estatuko, Erkidegoko edo Tokiko Administrazioetik apartatua egon behar, eta ez du ere ezgaitua egon behar funtzio publikoa egikaritzeko.
- e) Lizentziatura, Gradu edo Diplomatura baten jabetza izatea, edo HABEko homologazio probak gaindituta izatea. (1984ko ekainaren 22ko Ebazpena).
- f) 4. hizkuntza eskakizuna edo horren baliokidea izatea.
- g) Onartuak izateko, izangaiek, eskariak aurkezteko epea amaitu baino lehen, oinarri hauetan agertzen diren baldintza orokorrak izan behar dituzte.

Hirugarrena.- Eskariak:

Lehiaketan onartua izateko egiten diren eskariak Korporazioko Udalburuari zuzenduko zaizkio, eta horiek hurrengo baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Izangaiak, oinarrietan eskatutako baldintza guztiak eta horietako bakoitza betetzen dutela, adierazi beharko dute.
- b) Lehiaketan baloratu beharreko merituei dagozkien datuek, egokiro egiaztatuak izan beharko dute. Ez da baloratuko, eskariak aurkezteko epean egiaztatzen ez den meriturik.

Eskariak, behin egokiro bete ondoren, Udal Euskaltegiko Idazkaritzan aurkeztu behar dira, hamabost egun naturaleko epean, eta epe horri hasiera, iragarki hau prentsan argitaratu ondorengo biharamunean, emango zaio.

Eskariak, baita, Herri-administrazioen erregistroetan ere aurkez daitezke, azaroaren 26ko *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Komunaren 30/1992 Legeak*, 38.4 artikuluan, erabakitzen duen bezala.

Laugarrena. – Izangaiak onartzea:

Eskariak aurkezteko epea amaitutakoan, Korporazioko Udalburuak, edo horren ordezkariak duen Zinegotziak, onartutako eta kanpo utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du, Basauriko Udal Euskaltegiko iragarki taulan eta www.basauri.net helbidean, 7 egun baliodunetan.

Aipatu zerrendan, kanpo utzitakoen artean agertzen den izangaiak, 7 egun baliodun izango ditu, iragarki Taulan argitaratu ondorengo biharamunetik hasita, bazter uztea eragin duten akats edo omisioak zuzentzeko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda, automatikoki, behin betikoa dela ulertuko da. Erreklamaziorik egongo balitz, horiek onetsiak edo ezetsiak izango dira, ebazpen berri baten bidez, bost eguneko epearen barruan.

Bosgarrena.- Epaimahaia:

Epaimahaia, uztailaren 6ko *Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 31. artikuluko 2. atalean* ezarritakoaren arabera eratuko da, eta epaimahai horretako erdiek, gutxienez, sarrerako eskatzen den ezagutza-arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta epaimahaiko guztiek maila akademiko bera edo garaiagoa izan beharko dute.

Epaimahaia honela eratuko da:

Lehendakaria: Euskaltegiko Batza Artezkariko Lehendakaria,

Epaimahaikideak: Euskaltegiko langileen ordezkari bat.

Langileen ordezkari bat, sindikatuen ordezkaritzak izendatua.

HABEren ordezkari bat.

Idazkaria: Euskaltegiko zuzendaria (hitzarekin baina boto eskubiderik gabe).

Epaimahaiaren osaketa jendaurreko jarriko da Euskaltegiko iragarki taulan eta www.basauri.net helbidean, onartutakoen behin-betiko zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera.

Epaimahaiak bere lana aurrera eramateko xedez, aholkulari espezialistak ekarri ahal izango ditu hautaketa-prozesuko probetan parte har dezaten, hain zuzen, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarrita dagoen arabera. Epaimahaiak lehiaketa prozesuan sor daitezkeen zalantzen gaineko erabakiak hartzeko gaitasuna izango du.

Epaimahaia ezingo da eratu, hori osatzen duten kideetatik, kideen erdia baino gehiago presente ez badago, eta edozein modutan, Lehendakariak eta Idazkariak bertan egon behar dute derrigor. Erabakiak botu-kopuruaren gehiengoz hartuko dira, eta berdinketaren kasuan, Lehendakariaren botuak erabakiko du.

Epaimahaiko kideen abstentzio eta errefusatzeari dagokionean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazioko Prozedura Komunari buruzko Legearen 28. eta 29. artikuluetan erabakitakoa edukiko da kontuan.

Seigarren.- Lehiaketa:

Epaimahaiak hurrengo merituen baloratuko ditu, baldin eta eskariak epe barruan aurkeztuak, eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera egokiro egiaztatuak izan badira.

1.- Irakaskuntzako esperientzia. Gehienez 10 puntu.

Euskaltegiko irakasle, irakaspen-lanean emandako 330 ordu bakoitzeko puntu 1, eta hortik gorako orduak, proportzionalki, kontatuko dira. Esperientzia hori HABE erakundeak egiaztatu beharko du. 2015/2016 ikasturteko orduak euskaltegiek egiaztatu ahalko dituzte.

2.- Prestakuntza. Gehienez 4 puntu.

- 2 puntu, Euskal Filologia, Euskal ikasketetako gradua, Itzulpengintza eta Interpretazioa gradua A hizkuntza euskara denean edo Pedagogia Lizentziatura izatearren.
- 1,5 puntu, Euskal Filologia adarreko Magisteritzako titulua izatearren.
- Puntu bat (1), Magisteritzako titulua edo Itzulpengintza eta Interpretazioa gradua B, C edo D hizkuntza euskara denean izatearren .
- 0,20 puntu 20 orduko multzo bakoitzagatik, euskararen irakaskuntza (euskaraz) edo pedagogiari edo euskal itzulpengintzari buruzko ikastaroetan egindakoak (Gehienezko puntuazioa puntu 1)

3.- Beste batzuk. Gehienezko puntuazioa, puntu 1.

0,2 puntu, glotodidaktika, euskalduntze eta alfabetatze gaiei buruzko argitalpenengatik.

Zazpigarrena. Sailkapena eta merezimenduen balorazioa:

Merituei buruzko kalifikazioa amaitutakoan, Epaimahaiak jendaurreko jarriko du iragarki taulan, hautaketa-prozesua gainditua luketen izangaien zerrenda, horien merezimenduen kalifikazioarekin batera, eta horiek Lan Poltsa osatuko dute, eta ondoren, hori Udal Euskaltegiko eta Basauriko Udaleko iragarki taulan jarriko da jendaurreko.

Prozesuko sailkapen-ordena, aurkeztutako merituen balorazioan lortutako puntu guztiek emango dute, eta balizko berdinketa, Euskaltegiko irakasle lanetan ordu lektiboetan kopururik handiena egiaztatu duen izangaiaren alde apurtuko da, berdinketak segituko balu eskarmentua eta arduraren bat eduki izana hartuko lirateke kontuan.

Zortzigarrena.- Zerbitzuak eskaintzea:

Hautatutako izangaiak, lan-zerbitzuak eskaintzeko deituak izaten direnean, Basauriko Udal Euskaltegiak horiei eskatu ahal izango die, ezen egiazta ditzatela alegatutako baldintza edo inguruabar pertsonalak ea egiazkoak diren.

Eskatutako zerbitzuen eskaintza, hautatutako izangaien puntuazio-ordena zehatzaren arabera egingo da, azkenak amaitu lezakeen arte, eta berriro ere errotazioa hasi arte, hurrengo irizpideen arabera:

:

- a) Zerbitzuak, une bakoitzean aplikagarri izan daitekeen arautegiari jarraiki hitzartuko dira, eta bakar-bakarrik, aldi baterako pertsonalaren beharrak leudekeenean; baldin eta premia horiek, aldi baterako ordezkapenengatik suertatu balira, eta Euskaltegiko irakasleek ezin eskaini lezaketen behin-behineko lanetarako balira.
- b) Eskaintzaren iraupena, hori eragin zuen arrazoia bere horretan dirauen bitarteko epealdirako izango da, eta automatikoki ondoriorik gabe geratuko da, azken hori desagertzen denean, eta ordezkapeneko kontratuek izan ezik, ezingo dute 365 eguneko iraupena gainditu, horretarako, zerbitzura eskainitako epealdi guztiak gehitu beharko dira, eta ez da zerrendaren azken postura pasako, gehienezko egun kopurua bete arte.
- c) Baldin eta izangai batek ez balu eskatutako zerbitzuaren eskaintza emango, ez du zerrendako bere postua galduko, behar bezala justifikatuta egonez gero.